



**HAL**  
open science

## Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: inkesta pertzepziozko dialektologian oinarritua

Jean-Baptiste Coyos

### ► To cite this version:

Jean-Baptiste Coyos. Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: inkesta pertzepziozko dialektologian oinarritua. Euskera. Euskaltzandia'ren lan eta agiriak. Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca. Travaux et actes de l'Academie de la Langue Basque, 2018. artxibo-02299784

**HAL Id: artxibo-02299784**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-02299784v1>**

Submitted on 28 Sep 2019

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# **Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: inkesta pertzepziozko dialektologian oinarritua**

**El euskera unificado y los dialectos en el País Vasco Norte: una encuesta basada en la dialectología perceptual**

**Le basque unifié et les dialectes en Pays Basque Nord: une enquête basée sur la dialectologie perceptuelle**

**Basque unified language and the dialects of the North  
Pays Basque: A survey based on perceptive dialectology**

COYOS, Jean-Baptiste  
*Euskara eskuz esku* (EEE) egitasmoa  
Euskaltzaindia

Noiz jaso: 2019-02-05  
Noiz onartua: 2019-04-30

Artikulu honetan, *Euskara eskuz esku* (EEE) egitasmoan eraman den inkesta baten galdera itxiei buruzko emaitzak eta erantzunei inkestatuek emendatu dizkieten iruzkinak azaltzen dira. Pertzepziozko dialektologian oinarritua, galdetegia euskalgintzan ari diren 40 jenderi hedatua izan zaie, xede nagusia Ipar Euskal Herrian (IEH) euskara batuari eta euskalkiei buruzko iritziak biltzea zelarik.

Inkestatuak ezaugarri horren arabera hautatu ditugu: euskararen preskribatzaileak dira IEHn, era batez edo bestez. Horrek denek euskara lantzen dutela eta gizarteari euskara modelo bat eskaintzen diotela erran nahi du, idazle, irakasle, euskara teknikari, itzultzaile... izanez.

Ikerketak hori erakusten du, besteak beste: inkestatuen % 95ek euskara batua beharrezkoa dela IEHn pentsatzen dute, % 92,5ek IEHko hizkeren berezitasunak zaindu behar direla, % 80k euskara batuak IEHko euskalkiei kalterik ekartzen ez diela eta erdiak baino gehiagok euskara batu berezi bat badela orain IEHn. Nehork ez du erran IEHn euskara batua izatea beharrezkoa ez dela.

Ikerketa honen hurrengo urratsa inkestaren galdera irekiei erantzunen aztertzea izanen da.

**Gako-hitzak:** euskara batua, euskalkiak, Ipar Euskal Herria, pertzepziozko dialektologia, inkesta.

En este artículo han sido publicadas las respuestas al cuestionario cerrado que se ha realizado dentro del proyecto *Euskara eskuz esku* (EEE) y los comentarios y sugerencias que han realizado los encuestados mas allá de las preguntas del cuestionario.

Basada en la dialectología perceptiva, esta encuesta ha sido dirigida a 40 profesionales que trabajan en los diferentes ámbitos de la promoción del euskera. El objetivo principal es recoger información sobre la opinión que estos profesionales tienen sobre la relación entre los dialectos del País Vasco Norte (PVN) y el euskera unificado. Los encuestados han sido elegidos porque utilizan el euskera unificado a diario y en esa labor ofrecen un modelo a la sociedad: escritores, traductores, técnicos de política lingüística, profesores...

Los primeros resultados muestran que el 95 % de ellos ven necesario el euskera batua en el PVN. A su vez un 92,5 % ve necesario igualmente preservar el uso de los dialectos del PVN. Es mas, un 80 % piensa que el euskera unificado no perjudica a dichos dialectos y un 50 % opina que existe algo similar a un euskera unificado en el PVN. Nadie afirma que el euskera unificado no sea necesario.

Queda pendiente aún el analizar las respuestas que los profesionales han dado a las preguntas abiertas del cuestionario abierto.

**Palabras clave:** Euskera unificado, dialectos del euskera, País Vasco Norte, dialectología perceptiva, dialectología, encuesta.

Dans cet article sont présentés certains résultats d'une enquête menée dans le cadre du projet *Euskara Eskuz Esku* (Le basque de main en main). Ils concernent les réponses aux

questions fermées et les commentaires que les enquêtés ont joints à ces réponses. S'appuyant sur la dialectologie perceptive, le questionnaire a été proposé à 40 personnes engagées dans l'élaboration et la transmission de la langue basque. L'objectif principal était de recueillir leurs opinions sur le basque unifié et les dialectes en Pays Basque Nord (PBN).

Les enquêtés ont été choisis selon ce critère : ce sont tous des prescripteurs de la langue basque en PBN, d'une façon ou d'une autre. Ceci signifie que tous élaborent et proposent un modèle de langue à la société, qu'ils soient écrivains, enseignants, techniciens de la langue, traducteurs...

Voici quelques-uns des principaux résultats : 95 % des enquêtés estiment que le basque unifié est nécessaire en PBN, 92,5 % qu'il faut conserver les particularités des parlers du PBN, 80 % que le basque unifié ne porte pas tort aux dialectes locaux et un peu plus de la moitié qu'il existe maintenant une forme de basque unifié propre au PBN. Aucun des enquêtés n'a dit que le basque unifié n'était pas nécessaire.

Cette recherche va se poursuivre avec l'étude des réponses aux questions ouvertes de l'enquête.

**Mots-clés :** basque unifié, dialectes, Pays Basque Nord, dialectologie preceptuelle, enquête.

In this article, there have been published the answers that respondents have done to the survey made by the project *Euskara eskuz esku* (EEE) and, further the close questionnaire, the observations they have to the open questions.

Based on perceptive dialectology, this poll has been directed to 40 professionals that work in different fields of the Basque language promotion. The major goal of this poll is to collect information from those professionals about the Unified Basque language and the Basque dialects. We chose them because they use the Basque language currently and, therefore, they offer a model to the society of North Basque Country (NBC): writers, translators, Basque language technicians, teachers...

This research shows that the 95 % of the survey respondent professionals think the Basque Unified Language is necessary in NBC. On the other hand, 92,5 % of them think that it is also necessary to maintain the characteristics of dialects of NBC 80 % thinks that Unified Basque language does not damage those mentioned dialects and for another 50 %, there is something like Unified Basque language in NBC. Nobody affirmed that Unified Basque language is not useful.

The remaining work of this research will focus on the responses of the professionals to the open questions of the survey.

**Keywords:** Basque unified language, Basque language dialects, North Basque Country, perceptive dialectology, survey.

## 1. *Euskara eskuz esku* (EEE) egitasmoa eta inkesta<sup>1</sup>

Berrogeita hamar urtez euskara batuak bere bidea egin du; Ipar Euskal Herrian ere bai. Haren beharra ez da eztabaidatua orain eta gizarte-alor aniztetan sartua da, idatzia edota ahozkoa. Halere galdera anitz badira. Lehena behar bada, zer da euskara batua? Euskaltzaindiaren arauetan *stricto sensu* agertzen den euskara idatzia? Era batez bai. Bilbon edo Baionan erabiltzen diren euskara mota ezberdin horiek, espainolaren eta bizkaieraren edo frantsesaren eta Iparraldeko euskalkien eraginarengatik egunero aldatzen direnak? Era batez ere bai. Azken horiek Koldo Zuazorekin «tokiko batuak» deituko ditugu (2005, 231. or.). Beraz, gaian gehiago sartu gabe, erran dezakegu gaur egun euskara batua gauza konplexua dela, anitza eta aldakorra dela. Hizkuntza arautuak denak bezala, batua ez da batere monolitikoa.

Hizkuntza egoera konplexu hori kontuan hartuz, Iparraldeko euskaldunen eta euskara ikasten dutenen beharrei, dudei, galderei erantzuteko, Euskaltzaindiak *Euskara eskuz esku* (EEE) egitasmoa sortu du<sup>2</sup>. *Euskara eskuz esku* proiektuak Ipar Euskal Herriko hiztunei hizkuntza-aniztasuna kontuan hartuko duen euskara batuaren hedatzeko tresna linguistiko berria ematea du helburu. Egunero gaurkotua izanen den euskarri numerizatu erabilgarria sortuz, xedea euskaldunen galderei erantzutea da webgunearen testuen bidez edota, posta elektronikoz, erantzun zuzen baten bidez.

Euskarri horrek Euskaltzaindiak ematen dituen gomendioak eta arauak proposatuko ditu ordena alfabetikoan diren artikuluen erraz bidez, hizkuntza-alorren arabera sailkatuak, Ipar Euskal Herriko hizkuntza-aniztasunari dagozkionak azpimarratuz.

<sup>1</sup> Isabelle Duguine eta Koldo Zuazo eskertzen ditut egin duten lan honen aitazineko bertsio baten irakurketarengatik.

<sup>2</sup> 2014an asmatua, *Euskara Eskuz Esku* egitasmoa 2018-2020 epean Europako Lurralde Garapen Funttsak % 65ez lagundua da (Fonds Européen de Développement Régional, FEDER), Interreg V-A programaren barnean (Espainia-Frantzia-Andorra, POCTEFA 2014-2020). POCTEFAren helburua mugaz gaindiko Espainia-Frantzia-Andorra lurraldearen ekonomia- eta gizarte-integrazioa indartzea da. Bere laguntza ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jardueraren garatzean konzentratzen da, lurraldearen garapen jasangarria azkartzen duten estrategia erkideren bidez.

Adibide bat har dezagun, 5. araua, «*Ene/Nire, Niri*» deitzen dena<sup>3</sup>. Orrialde bateko testuan, lehenik *ene* forma zaharrena dela ohartzen da Euskaltzaindia, «bizkaieratik zubererara», gero «XVII. mendearen amaieran *nere* forma agertzen» dela eta azkenik *nire* forma bizkaieran lehenik. «Kasu honetan zahartasuna eta hedadura kontuan harturik *niri* da hobestekoa». Halere, bukaerako koadroan agertzen den araua hola idatzia da «Hauxe da, hortaz, Euskaltzaindiaren erabakia: *ni* izenordainaren noren kasuan *nire* erabil dadila (eta, jakina, *niretzat, nirekin*), eta orobat *ene*, maila jasoan bederen; nori kasuan *niri* erabil dadila». Hau da izanen EEEn lana: kasu honetan, adibidez, erakustea Ipar Euskal Herrian erabilia den *ene* forma ez dela Euskaltzaindiak baztertua eta lurralde horretan sartzen hasten ari den *nire* forma ez dugula lehenetsi behar, hori «egiazko» euskara batua litzatekeela ustez. Ez, *ene* forma irakatsi behar da ere ikastoletan eta gau eskoletan.

Oro har, helburua da erakustea nola euskara batua gauza daitekeen Ipar Euskal Herrian (IEH), azkenean hiztunak deliberatzen duela jakinez. Katearen puntan, hiztunak hizkuntza moldatzen du, gauzatzen du, hizkuntzaren bilakaeran arituz, gure kasuan euskararenean. Akademia batek edo hizkuntza-erakunde batek proposa lezake, baina azken finean erabiltzaileak, hots hiztunak erabakitzen du mintzatzeko edo idazteko mementoan.

Hizkuntza idatziari eta ahozkoari lotuak diren eremu guztiak kontuan hartuko ditu EEE euskarri numerizatuak: ortografia, morfosintaxia, hiztegitzeta, fonetika eta fonologia, onomastika, dialektologia, literatura, euskara batua eta Iparraldeko euskalkiak, euskara batua eta euskararen estatusa Ipar Euskal Herrian. Beraz, Iparraldeko hiztunentzat tresna baliagarri berri bat, baina bai ere lurralde horretako euskarari interesatzen zaizkionentzat.

Artikulu honetan, EEE egitasmoaren baitan eraman izan den inkesta baten lehen emaitzak aurkezten ditugu<sup>4</sup>. Inkesta horren helburu nagusia Ipar Euskal Herrian euskara batua eta euskalkiak nola harremanetan diren

<sup>3</sup> Bilbon 1994ko urriaren 28an onartua. Orain arte, Euskaltzaindiak 191 arau argitaratu ditu (2018-11-24an, [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)).

<sup>4</sup> Inkesta hori EEE egitasmoaren Isabelle Duguine ikertzailearekin eraman dut. Eskerrik anitz inkestan edo elkarrizketetan parte hartu dutenei deniei.

aztertzea zen, zer geroa zuten inkestatuen ustez. Beste molde batez erranik, euskararen hizkuntza-ekosistema nola agertzen zaien inkestatuei lurralde horretan.

Ondoko lerroaldeetan galdetegia eta inkestatuak aurkeztuko ditugu. Baina, lehenik, gure koadro teorikoa azal dezagun, *pertzepziozko dialektologiarena*.

## 2. Pertzepziozko dialektologia

### Pertzepziozko dialektologia zer da?

Pertzepziozko dialektologia soziolinguistikan sartzen da, «folk hizkuntzalaritza» (*folk linguistics*) deitzen denaren zati bat izanez. Aztertzen du nola hizkuntzalari ez direnek bariazio dialektala eta haren estatutua (bariazio dialektalarena) ulertzen dituzten.

Hizkuntza-gertaerak ikertu baino, hiztunen hizkuntza-kontzientzia dei genezakeena ikertzen du pertzepziozko dialektologiak. Hiztun baten hizkuntza-sinesmenak, sentimenduak eta jarrerak bere hizkuntza-ariketa eragiten dutela suposatzen du (Cramer, 1. or.)<sup>5</sup>.

Marie-Anne Paveau aipatzen dut: «(...) folk proposamenak ez dira zientziazatik nahitaez baztertzeko diren sinesmen faltsuak, jakintza pertzeptibo, subjektibo eta ez osoak dira, hizkuntzalaritzaren datu zientifikoetan sartze-koak» (2008, 94. or.)<sup>6</sup>. «Horrengatik folk hizkuntzalaritza datu-gordailutzat hartu behar du hizkuntzalaritza zientifikoak, ezein hizkuntzalari zientifikok metodo “zientifiko”-ren bidez biltzen ez dituen datuak» eta gizarte-zientzietan usu agertzen den behaketa zientifikoaren ezaugarri hori azpimarratzen du Paveauk: «(...) behaketa zientifiko anitzen hauskortasun zientifikoa, posizio subjektiboetarik atera direnak sarritan idiolektalak izanik» (*ibid.*, 107. or.).

<sup>5</sup> Halere, hizkuntza-kontzientziaren eta hizkuntza-ariketaren arteko lotura ez da gure ikergai. IEHko hiztun batzuen euskara batuari eta euskalkiei buruzko hizkuntza-sinesmenak, sentimenduak eta jarrerak baizik.

<sup>6</sup> Atal honetako aipamenen itzulpena enea da.

Bestalde, pertzepziozko dialektologiak hizkuntza-komunitate baten hiztunen hizkuntza-pertzepzioaren ezagutzeak indarrean eman nahi diren hizkuntza-politiken elaborazio zehatzagoa lagun dezake (Cramer, 2. or.). Eta hau da ere EEE egitasmoaren helburuetarik bat: IEHan euskara batuaren onarpenaren gradua ulertzea, euskalkien estatutua eta ematen zaien balioa ulertzea, euskara mota ezberdin horien arteko kudeaketa hobetzeko.

### **Pertzepziozko dialektologia eta bere baliagarritasuna**

Pertzepziozko dialektologiak beste tresna eta argibide batzuk ekar litzake.

«Norbanako baten hizkuntza-kontzientzia molde ezberdinez ager daiteke eta izan daiteke: i) esplizitua, hiztunen hizkuntza-sinesmenen, ezagutzen (intuitiboak), usteen edo judizioen bidez (orduan, hizkuntza-kontzientzia esplizitua deitzen da); ii) inplizitua, hiztunen hizkuntza-irudikapenen, portaeren edo jarreraren bidez karakterizatua (kasu honetan, hizkuntza-kontzientzia inplizitua deitzen da)» (Gally, 2. or.).

«Pertzepziozko dialektologian oinarritu diren erantzunak balia daitezke, sarrerako puntu gisa, hizkuntza baten prestigioa, erakargarritasuna, ezagutza eta bai ere ulermen batez besteko maila neurtzeko» (Sanders. 3. or.). Hori gure lanarentzat baliagarria izanen da.

«Pertzepziozko dialektologiaren helburuetarik bat da «(...) eman den komunitate baten bizipen soziolinguistikoa determinatzea eta ulertzea, baita ere hainbat fenomeno esplikatzea, hizkuntza-bariazioa eta aldaketa besteak beste»» (Berruto, Gallyk aipatua, 3. or.).

Adibidez «Italian, Torino eta Milanoko unibertsitateeko ikertzaileek pertzepziozko dialektologia baliatzen dute hizkuntza-gutxiengo eta hizkuntza-plangintza arazo zenbait konpontzeko» (Gally, 3. or.). Kasu honetan, helburua da nola euskara batua oinarritu den Ipar Euskal Herrian ulertzen saiatzea, zein neurrian, zein forman eta zer bilakatzen den, lurralde horretako euskalkien eta hizkeren ondoan.

Hori erranik, zergatik pertzepziozko dialektologia balia gure proiektuan? Guk ere IEHko hiztun batzuen euskara batuari eta euskalkiei buruzko hizkuntza-sinesmenak, sentimenduak eta portaerak aztertu nahi baititugu.



Errealitate linguistiko konplexu eta aldakor hori neurtu nahi dugu, ez guk uste dugun bezalakoa dela pentsatuz, baina inkestatu berezi multzo baten bidez, Ipar Euskal Herriko errealitate linguistiko horren jokalaria garrantzitsuak direnak. Laugarren atalean inkestatu horiek nola hautatu ditugun azalduko dugu.

### 3. Inkestaren eta elkarrizketen egitura

Galdetegia euskalgintzan ari diren jendei hedatua da, xede nagusia Ipar Euskal Herrian euskara batuari eta euskalkiei buruzko iritziak biltzea delarik.

Hastapen intuizioa eta lan-hipotesia ziren lurralde horretan euskalkiak mantentzen baldin baziren, gutxi gorabehera, barnealdean bederen, Zuberorako bereziki, ber denboran batasun prozesu bat ari zela azkartzen Lapurdin eta Nafarroa Beherean. Hori bereziki belaunaldi gazteenengan, lehen-lehenik irakaskuntzari esker, familia-transmisioa oro har aski ahula delarik. Gainera, adineko euskaldun zaharrak, tokiko euskara etxen ikasi zutenak euskara batua zer den jakin gabe, desagertzen ari dira. Hau da mugimendu orokorra Ipar Euskal Herrian ere, euskaldunek gero eta gehiago euskara batua zer den badakite eta gero eta gehiagok menperatzen dute ere. Euskara batu bat bederen, Euskaltzaindiarena ez bada ere (1. atala ikus).

#### Galdetegia

Hamalau galdera baditugu, batzuk itxiak (BAI / EZ) eta besteak irekiak. Halere galdera itxietan ere inkestatuek aukera bazuten iruzkinak emateko. Ez ditugu orain emaitzak eta emaitzen iruzkinak emanen, seigarren atalean azalduko ditugu<sup>7</sup>. Hauek ziren galderen multzoak.

1. *Zure ustez Iparraldeko euskara batu berezi bat ba ote da orain?*
2. *Baietz erantzun baldin baduzu, uste duzua euskara batu idatzi bat badugula orain Iparraldean?*

---

<sup>7</sup> Galdera irekiei buruzko emaitzak eta emaitzen iruzkinak beste argitalpen batean aurkeztuko ditugu.

3. *Halaber, 1. erantzunean baietz erran baldin baduzu, orain Iparraldean ahozko euskara batu mota bat badela uste duzua?*

Lehen multzoan, 3 galderen bidez, IEHan euskara batu berezi bat denetz ala ez, eta bat baldin bada, zein diren haren ezaugarriak aztertzen da. Bistan da inkestatuek denek ez dute euskara batuaren ber definizioa. Baina hau da inkesta denen muga bat, inkestatuek ez dituzte galderak ber adieran ulertzen.

4. *Zoin dira euskara batuari lotuak diren arazoak Iparraldean?*

5. *Euskara batuak kalteak ekartzen ote dizkie Iparraldeko euskalkiei?*

Bigarren galdera multzoan helburua da aztertzen saiatzea euskara batuaren eta euskalkien arteko nahitaezko harremanek arazorik sortzen duten ala ez. Guk ez genuen eztabaida horretan sartu nahi, euskara batua euskalkien aurka ariko litzatekeela edo holakorik, baina inkestatu batzuk hori pentsa zezaketen.

6. *Iparraldeko hizkeren berezitasunak zaindu behar ote dira?*

7. *Hizkuntza aniztasuna baliagarria ote da euskararentzat?*

Hirugarren galdera multzoak IEHko euskararen aniztasun dialektalak baliorik duenetz eta, era orokorrean, euskararen dibertsitatea baliagarria denetz aztertu nahi luke.

8. *Beharrezkoa ikusten ote duzu euskara batuaren izatea Iparraldean?*

Zortzigarren galdera argia da, halere inkestatuek denek «euskara batua» erranmoldeari adiera bera ematen ez diotela oroitaraziz. Baina egin dituzten iruzkinetan hori argitu da.

9. *Iparraldean egiten diren huts moten artean, zoin dira larrienak, zure ustez? Zoin dira ohikoenak?*

Galdera horrekin inkestatuen beste alde bat agerrarazi nahi da. Ikusiko dugun bezala, denak era batez preskribatzaileak baitziren (irakasle, idazle, kazetari, itzultzaile, euskara teknikari...), euskararen kalitatea nola ikusten zuten erran zezatela zen helburua. Hori ere lagungarria izan baitzitekeen EEE euskarri numerizatuaren sortzaileentzat eta erabitzzaileentzat: euskararekiko arazoak, dudak, balizko «hutsak»...

10. *Zuk, euskara batua non, noiz eta norekin baliatzen duzu?*

11. *Eta zure euskalkia non, noiz eta norekin baliatzen duzu?*

Euskara batuaren eta euskalkiaren, inkestatuak bat baldin badu, erabile-ra ebaluatu nahi da.

12. *Zure ustez, zoin da euskara batuaren eta euskalkien geroa Iparraldean?*

Hemen, bistan da, nehork ez baitaki xuxen zer gertatuko den, helburua zen berriz ere usteak, sentimenduak biltzea, optimistenak eta pesimistenak, euskara batuzaleenak eta euskalkizaleenak, etab.

13. *Zerbait gehiago errateko ba ote duzu euskara batuari eta euskalkiei buruz Ipar Euskal Herrian?*

Galdera ireki horrek inkestatuari parada ematen zion erran nahi zuena emendatzeko eta anitzek baliatu dute.

Burutzeko, azken galdera hori zen:

14. *Euskara eskuz esku (EEE) egitasmoaren laguntzaileen zerrendan zure deitura ager dadila onartzen duzua?*

### **Datuen biltze moduak**

Inkesta bi moldez eginarazi da. Alde batetik, dokumentu numerizatu batean inkestatuak galdetegia bete du eta emailaz igorri. Erantzunen luzera libre zen. Bestetik, buruz buruko elkarrizketa egin da hamar inkestatuarekin, hamalau galderak eginez. Grabatuak izan dira elkarrizketak eta transkribatuak. Gainera, grabatu horietarik batzuek idatzizko inkesta bete dute ere.

Inkestatuek zuten libertateak corpus zabal eta aberatsa eman du. Batzuetan, ez diete galderei denei erantzun eta zenbaitek beste zerbait aipatu dute, baina beti euskara batuari eta euskalkiei buruz zerbait ekarri, beren esperientzia pertsonala, sentimenduak, usteak, jarrerak azalduz.

## **4. Zein inkestatu? Hautaketaren irizpideak**

Pertzeptziozko dialektologiaren tradizioan, hizkuntzalari ez direnak, hiztun arruntak, dira galdatuak, jakiteko, adibidez, haien ustez zein diren haien

hizkeraren bezalako eremuak edo ez bezalakoak, mapak, hizkuntza-berria-  
zioaren mugak marrazteko. Eta gero ikergaiak zabaldu dira, hiztun arrunteei  
hizkera lagin batzuk entzunaraziz adibidez, hizkera horien ezberdinta-  
sun-gradua, goxotasuna edo zuzentasuna neur ditzaten, etab.

Guk euskaldun zahar arruntak ez ditugu aztertu, euskara batua ezagutzen  
ez dutenak. Horietan batzuek «euskara batua» erranmoldea ere ez dute seku-  
la entzun. Gure ikergaian ez dira sartzen. Zergatik? Ikerketaren helburua ez  
da euskara batuari buruz edo euskalkiei buruz Ipar Euskal Herrian entzuten  
ditugun aitziniritziak, estereotipoak edo klixeak biltzea, batzuetan euskara  
ezagutzen ez dutenen bidez hedatuak. Eta bistan da gaia aztertu, ikertu gabe,  
beren baieztapen egiaztatu gabe. Hori beste ikerketa baten gaia litzateke.

Ez, guk, inkesta baten bidez, Ipar Euskal Herrian euskara batua zertan den  
aztertu nahi dugu, euskalkiekiko elkarbizitza nolakoa den eta holako gaiak.

Beraz, zein irizpideren arabera hautatu ditugu inkestatuak, argitzaileak,  
informatzaileak? Denak IEHn **euskararen preskribatzaileak** dira, era batez  
edo bestez. Preskribatzaile izateak erran nahi du denek euskara lantzen du-  
tela adiera honetan: euskara eta euskaraz erakasten dute, horietan bizpahi-  
ru dialektologo badaude, edo euskaraz idazten dute eta lana argitaratzen,  
edo kazetariak dira, edo itzulpen lanak eramaten dituzte gehienik frantse-  
setik euskarara edo euskaratik frantsesera, edo euskara teknikariak dira  
tokiko kolektibitateetan, etab. Hots, euskara transmititzen dute eremu pu-  
blikoan, entzuteko edo irakurtzeko ematen dute eta horrengatik preskriba-  
tzaileak dira, euskara «modelo» emaleak dira, bakoitzak bere modelo pro-  
pioa eskainiz.

Gehiengoan hizkuntzalariak ez badira, hautuak egin behar dituzte. Zein  
euskara mota erabil? Beren euskalkia, bat baldin badute? Edo euskara batua?  
Zein euskara batua? Nor da publikoa, zein da testuingurua, helburua, etab?

Ildo honetan Marie-Anne Paveauren oharra interesgarria iduritzen zait:  
«Hiztun ez-hizkuntzalari baten eta hizkuntzalari baten intuizioen artean  
ezberdintasunik ote da? Ezetz, erantzuten du Devitt jaun filosofoak, hizkun-  
tzalarien intuizioak folk hizkuntzalarienak baino hobere direla kontsideratzen  
duenak, intuizioak ez baitira uste den bezala sortzetikoak baina, bai, teoriak

kargaturik» (*ibid.*, 104. or.). Ohar hori zehazteko, hizkuntzalari ez direnen intuizioak hizkuntzei buruzko teorian ere oinarrituak direla erran nezake, teoria zati ttipitan, baina teoria ez gogoetatu batean, ez landua, hizkuntzei buruzko ideologian oinarritua, eskolak, komunikabideek, iritzi-liderrek barreiatua jendarteko iritzian, Frantzia ala Espainian halaber.

## 5. Inkestaturen profila: datu pertsonalak

Hamalau galderei erantzun baino lehen (3. atala ikus), inkestatuek datu pertsonal batzuk bete ahal zituzten: izena – deitura, erantzunaren data, sorteguna, sorterrria, bizi herria, «Nola ikasi duzu euskara?» galderari erantzutea eta helbide elektronikoa. Inkesta idatzia egin dutenek denek argibide horiek eman dituzte. Aldiz, elkarrizketa grabatua bakarrik egin dutenen datu pertsonal horiek denak biltzeko ez gara gai izan. Horrengatik ondoko tauletan «ez ezagutu» zutabea agertzen da.

Inkestaren emaitzak anonimoak izanen zirela idatzia zen eta 14. galderan EEE egitasmoan laguntzaileen zerrendan beren deitura ager zedila onar zaketen (galdetegi osoa 3. atalean ikus). Denek bik salbu onartu dute beren deitura ager dadila.

### Adina – Sexua

Adin-talde (urtea)		20-34	35-49	50-64	≥ 65	ez ezagutu	%
Emazte	<b>14</b>		<b>4</b>	<b>7</b>	<b>3</b>		% 35,00
Gizon	<b>26</b>		<b>7</b>	<b>8</b>	<b>10</b>	<b>1</b>	% 65,00
%			% 27,50	% 37,50	% 32,50	% 2,50	

Sexuaren parametroan bi taldeak ez dira orekatuak. Emazteak inkestaturen multzoaren herena dira bakarrik. Hori hobetzeko litzateke.

Adin-taldeak orekatuagoak dira, baina 20-34 urtekoa hutsik da. Arrazoa adin horretan «preskribatzaile» gutiago badirela ote da? Ez, IEHn idazle gazte guti baldin badira, adin horretan euskara irakasle, bereziki, eta euskara teknikari badira. Baina inkestatzaileek gutiago ezagutzen dituzte. Dena

den, adin-talde hori ere aztertzeke litzateke, ulertzeko, besteak beste, euskara batuari zein harrera egiten dion, denek era batez edo bestez eskolan ikasi dutela jakinez.

#### Sorterria

Herrialdea	Lapurdi	Nafar. Beh.	Zuberoa	Hegoaldea	Frantzia
	<b>11</b>	<b>15</b>	<b>6</b>	<b>5</b>	<b>3</b>
%	% 27,50	% 37,50	% 15,00	% 12,50	% 7,50

Inkestatuen kasik %40 Nafarroa Beherean sortua dira, hiru Euskal Herrikanpo (bi Parisen eta bat Pauen) eta bost Hegoaldean.

Datu hori interesgarria da haur denboran entzun edo ikasi duten euskalkia susmatzeko, bereziki etxen euskara ikasi dutela erraten dutenean (ikus beherago).

#### Bizi herria

Herrialdea	Lapurdi	Nafar. Beh.	Zuberoa	Hegoaldea	ez ezagutu
	<b>24</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>2</b>	<b>1</b>
%	% 60,00	% 15,00	% 17,50	% 5,00	% 2,50

Kostaldeko erakargarritasuna, Lapurdikoa, agertzen zaigu bizi herria sorterriari konparatzen baldin badiogu. Eta horretan Baiona-Angelu-Miarritze (gehi Hiriburu, Milafanga...), IEHko hirigune nagusia, da lehen bizigunea. Zuberoaren kasuan sorterria eta bizigunea konparagarriak dira. Aldiz, Nafarroa Behereak inkestatuen hirueterarik kasik bi galdu ditu.

#### Nola ikasi duzu euskara?

	Etxen	Ikastolan	AEKn	Autoikaskuntza	ez ezagutu
Etxen	<b>26</b>				
Ikastolan	<b>2</b>	<b>1</b>			
AEKn			<b>1</b>	<b>1</b>	
Autoikaskuntza	<b>7</b>			<b>1</b>	
ez ezagutu					<b>1</b>
%	% 87,50	% 2,50	% 2,50	% 5,00	% 2,50

Erantzun bat edo bi kontuan hartu dira.

Ikergai horrek iruzkin luzeak mereziko lituzke; baina galdera aski motz zen eta erantzuna hitz batekoa edo erranaldi batekoa izan zen. Gainera, informatzaile batzuek bi ikasmolde eman dituzte, etxen eta ikastolan adibidez, ahozko euskara eta idatzia ezberdinduz behar bada, edo AEKn eta autoikaskuntzaz... Kasu horietan bi moldeak emanik dira taulan, lerroa eta zutabea gurutzatuz.

Bestalde, «etxean» bakarrik erran dutenengan, segur da batzuek ikastolan edo gehiagok autoikaskuntzari esker ere euskararen ezagutza hobetu dutela edo, ahantzi eta, berreskuratu dutela.

Familia transmisioa nagusitzen da, % 90 kasik izanez. Euskararen ikasmolde horri % 27,7k autoikaskuntza emendatu diote. Hau da, bizi osoan ikas daiteke, edo euskara ahantzi zutela eta berriz ikasi, edo ahozkoa haurtzaroan ikasirik idatzia ondotik ikasi dutela. Baina horretan suposizioetan gaude.

#### Ofizio (ohi)a – Jarduera nagusia

		%	Euskaltzain oso	Ohorezko - Urgazle
Ikertzaile - Dialektologo <sup>8</sup>	2	% 5,00		2
Irakasle	11	% 27,50	1	2
Idazle	6	% 15,00	2	1
Kazetari	6	% 15,00		3
Euskara teknikari	6	% 15,00		
Itzultzaile	4	% 10,00		
Beste	5	% 12,50		

Inkestan argibide hori ez zen galdatua. Baina inkestatuek denek zer egingen zuten baikenakien, ofizioa edo erretretako jarduera, taula hori bete dugu.

<sup>8</sup> Ikertzaile bat irakasle edo idazle izan daiteke, adibidez. Kasu honetan ofizio edo jarduera nagusia kontuan hartzen da.

Zazpi kategoria ezberdinu ditugu. Lehen lerroan ikertzaile-dialektologoak ezarri ditugu, horiek euskara batua eta euskalkiak ikertzen baitituzte, haien lana delarik. Printzipioz, gure ikergaia beste inkestatuek baino hobe ezagutzen dutela suposa dezakegu. Baina, bistan da, beste kategorietako kideen ezagutza biziki zehatza izan daiteke. Irakasleak 2. mailako, unibertsitate eta AEKko irakasleak dira; ez ditugu ezberdinu. Bi ikertzaileak irakasle dira ere.

Irakasleen kategoria handiena da, inkestatuen herena.

«Beste» kategorian daudenek euskal kulturari lan egiten dute eta euskara egunero baliatzen dute, ahozkoa edota idatzia.

Bestalde, euskaltzain osoak, urgazleak eta ohorezkoak inkestatuen % 25 dira.

## 6. Galdera itxiak: erantzunak

Orain galdera itxiei erantzunak azter ditzagun. Zortzi ziren, 1.a, 2.a, 3.a, 5.a, 6.a, 7.a eta 8.a, gure ikergaiari buruz azkenak, 14.ak, deus ekartzen ez zuelarik.

Sailkapenak lau kategoria bazituen: «BAI», «EZ», «BAI eta EZ» erantzuna argi ez zenean eta «Erantzunik ez».

Galdutua ala ez galdutua inkestan, batzuek, gehiengoak hain zuzen, iruzkin zenbait egin dituzte beren erantzuna azaltzeko, esplikatzeko. Iruzkin horietarik aipamen batzuk han-hor eginen ditugu.

1. galdera: *Zure ustez Iparraldeko euskara batu berezi bat ba ote da orain?*

BAI	23	% 57,50
EZ	11	% 27,50
BAI eta EZ	3	% 7,50
Erantzunik ez	3	% 7,50

Inkestatuen erdiak baino gehiago uste du euskara batu berezi bat badela orain Ipar Euskal Herrian, herenak baino gutiago ez dela uste du, eta hiruk bai eta ez elkarrekin.



Batzuek, erantzun ondotik, egin dituzten iruzkinek zenbaki horiek argitzen dituzte eta azalpen luzeagoa merezi lukete. Hori beste argitalpen batean eginen dugu. Halere, bizpahiru ohar egin ditzagun xehetasunetan sartu gabe.

Baietz erran eta iruzkinak egin dituztenengan, *Herria* astekariari, *Berria* egunkariko IEKko *Hitza* gehigarriari eta ikastolei esker estandar mota bat badela erraten dute edo sortzen ari dela, Hegoaldekoari konparatzen baldin badiogu, baina nahaste bat dena, frantsesak eta IEHko euskalkiek kutsatua. Beraz erran dezaket euskara berezi hori hain «batu» ez dela.

Aipamen bat: «Bada nere ustez lapurtera baxenafarteraren arteko sortzen ari den standard bat. Nik standard deituko nioke». Eta gutxiengo batentzat, «euskara batu» hori aspaldidanik badago IEHn, lapurteran eta behe-nafarreran oinarritua aldizkarietan, *Eskualduna*, *Gure Herria* edo *Herrian*, edo Elizaren idazki ezberdinetan (katixima, mezako liburuxkak, etab.).

Ezetz erran eta iruzkinak egin dituztenengan, ohar nagusia da Larrainetik (Zuberoa) Hendaia (Hego Lapurdi) euskara batu bat dugula ez dela erraten ahal. Bateratzerik ez dela. Horri buruz adibide bat: «Dakienak daki, nik ez dakit. Uste dut nahasketa bat egiten dugula, “gure” euskara eta batuaren artean. Ez nezake erran euskara batu berezi bat dugula».

Gutxiengo batentzat euskara batua bakarra da, Euskal Herri osoko.

«Bai eta ez» erran dutenen artean, hona baten aipamena: «Zaila zait bai ala ez biribil erantzutea, joera nagusi bat badela erranen nuke, bai, baina ez dakit Donapaleun eta Hendaian “iparraldeko batu” bera baliatzen den, ez dut uste».

2. galdera: *Baietz erantzun baldin baduzu, uste duzua euskara batu idatzi bat badugula orain Iparraldean?*

BAI	20	% 50,00
EZ	3	% 7,50
BAI eta EZ	5	% 12,50
Erantzunik ez	12	% 30,00

Lehen taulari konparatzen baldin badiogu, IEHn euskara batu idatzi berezi bat badela uste dutenak kasik erdia dira oraino. Aldiz, ezetz erran dutenak ainitz gutiago dira; lehen galderari ezetz erran baitzioten bigarren galdera horri logikoki ez diote erantzun.

2. galdera itxiari galdera ireki bat emendatu zitzaion: «*BAI baldin bada, zoin dira haren ezaugarriak?*». Laburzki, baietz erran eta galdera honi erantzun dutenengan, euskara batuaren arautegia (Euskaltzaindiarena) aplikatzen dela uste dute, hitz berriak eta aditz arautua baliatuz, aldiz IEHko lexikoa eta erranmoldeak atxikiz: beraz, batuari buruzko hurbilketa bat. Horrengatik Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko idazleak ezberdintzen ditugu. Iruzkin bat: «Beste euskalkietatik datozen hitz anitz barneratuak ditu [IEHko batuak], hitz berri parrasta bat ere bai eta aditz batua ere nahikoa. Hau dena, ene ustez, euskarazko erakaskuntzatik, irratigintzatik ere dator...».

Ezetz erran eta galdera honi erantzun dutenak guti dira. Uste dute nahasketa bat egiten dela IEHn.

«Bai eta ez» elkarrekin erran duen baten aipamena: «Ez naiz tronpatu... Nahiz eta ene ustez IEH-ko «batu» batez mintzatzea arras zuzena ez den, bada ordea idazki batzuetan Iparraldeko kutxu bat ematen dioten berezitasun batzuk».

3. galdera: *Halaber, 1. erantzunean baietz erran baldin baduzu, orain Iparraldean ahozko euskara batu mota bat badela uste duzua?*

BAI	20	% 50,00
EZ	6	% 15,00
BAI eta EZ	2	% 5,00
Erantzunik ez	12	% 30,00

Bigarren galderan bezala, 3. taula hau lehen taulari konparatzen baldin badiogu, IEHn ahozko euskara batu berezi bat badela uste dutenak erdia dira oraino. Aldiz, ezetz erran dutenak ainitz gutiago dira; 1. galderari ezetz erran baitzioten 3. galdera horri logikoki ez diote erantzun.

3. galdera itxiari galdera ireki bat emendatu zitzaion: «*BAI baldin bada, zoin dira haren ezaugarriak?*». Baietz erran eta galdera honi erantzun dioten

inkestatuek uste dute euskara batu hori gehiago markatua dela idatzian ahozkoan baino. Bertako fonetika eta prosodia atxikitzen dira, zuberera-koak aparte egonez. Ildo honetan, mintzatzen denean hiztunak badaki bere solaskidearekin noraino joaten ahal den, IEHn leku eta hizkera ezberdine-tako jendea baita. Bestetik, euskaldun berrien eta euskalkidunen «euskara batuak» bereizteko lirerateke.

Hona IEHn ahozko euskara batu motarik ez dela pentsatzen dutenentarik baten iruzkina: «Ahozkoan egoera lausoagoa da, ahozko euskara batu mota berezi bat baino erran nezake Iparraldeko hiztun guziek aise elkar ulertzen dutela. Hainbat arrazoi: – hiztunek elkar ikusten dute Iparraldeko hiriburu-  
an, hots, Baionan – Euskal Irratien indarra – ikastolen garapena».

Erran bezala, erantzun ez dutenak anitz dira, herena, lehen galderari, euskara batu berezi bat bazenetz orain IEHn, ezetz erantzun baitzioten.

*5. galdera: Euskara batuak kalteak ekartzen ote dizkie Iparraldeko euskalkiei?*

BAI	3	% 7,50
EZ	32	% 80,00
BAI eta EZ	3	% 7,50
Erantzunik ez	2	% 5,00

Inkestatuan % 80k uste dute euskara batuak IEHko euskalkiei kalterik ez diela ekartzen. % 7,50ek alderantzia. Batzuek, erantzun eta, iruzkinak egin dituzte. Holaxe labur nitzake.

Ezetz erran dutenek uste dute euskara batuak berak ez diela kalterik egiten, baina gaizki erabiltzeak bai, euskalkiak murriztak eta okerrak direla edo Hego Euskal Herriko berezitasunak egiatzko batua direla ustez. Aldiz, bai, frantsesak kalte egiten die. Euskara batua euskalkien kontrakoa dela «auzi faltsu» bat da, bakoitza behar den egoeran erabilten baldin bada. Iruzkin bat adibide gisa: «Frantsesak askoz kalte handiagoak ekartzen dizkie euskalkiei, euskara batuak baino».

Baietz erran duten hiruek uste dute IEHko ikastolek eta gau eskolek, Zuberoan salbu, euskara batu mota bat erakatsiz eta erabiliz euskalkien eta tokiko hizkeren ezagutzari eta erabilerari kalte egiten dietela. Azken horiek

gero eta arrotzagoak izanen direla. Batak dio: «Horrek erran nahi luke luzara euskara batua zabaltzen bada irakaskuntzaren bidez, euskalkiak arrotz bilakatuko direla, euskalkietan hitzun gutiago izanen dela eta denborarekin desagert laitezkeela». Beste batek: «Bai, logikoki. Errateko manera, hiztegia, egitura gureak emeki-emeki aldatuko dira, han hemenka desagertuz».

6. galdera: *Iparraldeko hizkeren berezitasunak zaindu behar ote dira?*

BAI	37	% 92,50
EZ	0	% 0
BAI eta EZ	2	% 5,00
Erantzunik ez	1	% 2,50

Galdera honekin ahobatezkotasuna handiagoa da, % 92,50. IEHko hizkeren berezitasunak zaindu behar direla uste dute. «Zendako?» Galdera honen bidez, iruzkinak, azalpenak galdatuak ziren eta kasik denek erantzun dute.

Hona bi iruzkin berezitasun horien begiratzeaz: «Bai, dudarik gabe, ahal bezain bat, baina nostalgia saminetik kanpo: honek beldur hertsu bat dakar eta absolutuki atxiki nahi duen naturaltasuna galtzen du». «Uste dut distantzia hartu behar dugula eta euskararen egoera orokorra gogoetatu behar dugula. (...) etorkizunari begira, zer nahi dugu? Euskara, munduko hizkuntza bezala, biziarazi, transmititu eta zabaldu. Eta horretarako sustraia eta enborra sendotu behar dizkiogu, euskara batua azkartuz. Bestela desagertuko da, besteen irentsiko dutelako».

Beste inkestatu horrek, IEHko berezitasunak baztertu gabe, ohar orokorragoa egiten du, euskara batzeko bidean gaudela oraino: «Estandarizazioa jendeen solasak egiten du. Gure batua oraindik gazteegia da, nire ustez, bidean da, izateko bidean. Behar den egoeran erabiltzeko gai izanen garenean denak, orduan izanen baita batua».

Gehienik erabilia den kalifikatzailea «aberatsa, aberastasuna» da: baietz erran duten 36 inkestatuetarik 21ek hitz hori erabili dute (*aberastasuna, aberasten, aberatsa, aberatsago* etab., *altxor bat* ere). IEHko euskalkiek euskara batua elikatzen dute, nortasun markatzaileak dira, mintzatzeko plazera

ematen dute, belaunaldien arteko komunikatzeko baliagarriak direlarik. Baina ez dira aski zainduak eta pobretzen ari dira.

Euskalkia nortasunari lotzen dio inkestatu horrek: «Nihaurek ttipititik mintzatu dudan euskara garaztarra da, euskalki berezia dena. Euskalkiek badute nortasun bat, badakigu nungoa den mintzatzen den pertsona eta pertsonalki hori interesantea atzemaiten dut».

Hona ama baten aipamena, euskalkien erabileraz eta bizi den bilakaeraz IEHn: «Bakoitzaren sentimenduen arabera. Nik Ziburuko formak atxikitzen ditut haurrekin mintzo naizelarik, haiek Lekorneko formak ikasten dituzte ikastolan, nahastea ere ederra da. Ez ditut berezitasunak muga gisa ikusten (Hendaian hala egin behar da, Garazin hola...), baizik eta aberastasun gisa».

Azken inkestatu horrek euskaldunen diskriminazioa eta autodebaluazioa azpimarratzen ditu: «Hizkerak baino gehiago euskal hiztun guziak zaindu behar dira eta beraz “euskal hiztun hizkeradunak” ere bai. Euskal hiztuna diskriminatua izan da frantsesa ez zuelako ongi menperatzen edo azentu batekin (sic) mintzatzen zelako, orain ere bai (lehen baino molde leunagoan bada ere). Horri gehitu behar da hainbat hiztunek “beren” euskara guties-ten dutela, adibidez “etxekoa” dutelako, hots, ez eskolan ikasia. Pentsamolde horrek gaitzeko eragina ukan du erabileran eta transmisioan».

Nehork ez du erran IEHko hizkeren berezitasunak zaindu behar ez direla. Beraz, kasu honetan, ikusmoldea argi-argia da.

*7. galdera: Hizkuntza aniztasuna baliagarria ote da euskararentzat?*

BAI	35	% 87,50
EZ	1	% 2,50
BAI eta EZ	0	% 0
Erantzunik ez	4	% 10,00

Galdera orokor honekin ere ahobatezkotasuna handia da. Bai, euskararentzat, hizkuntza aniztasuna baliagarria da. Ohar gaitezen 7. galdera hau 6. galderari hurbila zitzaioala. Galdaturik ez izanik ere, batzuek iruzkinak egin dituzte.

Garrantzitsua da bizpahiru tresna ukaitea (euskara batua, euskalkia, tokiko hizkera, familiakoa...), erregistroak. Hemen ere batek baino gehiagok aberastasun nozioa aipatzen du. Aniztasun horrek aberastasuna ekartzen dio euskarari. Bi aipamen. Bata: «Aniztasuna beti ona da, alor guztietan» eta bestea: «Aniztasun horrek du aberastasuna ekartzen. Hori unibertetsala da».

Ezetz erran duen bakarrak ez du iruzkinik egin.

8. galdera: *Beharrezkoa ikusten ote duzu euskara batuaren izatea Iparraldean?*

BAI	38	% 95,00
EZ		
BAI eta EZ	1	% 2,50
Erantzunik ez	1	% 2,50

Galdera honek ahobatezkotasuna handiena eskuratzen du. Nehork ez du ezetz erran, batek bakarrik bai eta ez. Oro har, beraz, inkestatuen arabera euskara batuaren izatea beharrezkoa da Ipar Euskal Herrian.

«Zendako?» galderaren bidez azalpenak galdatuak ziren eta kasik denek erantzun dute. Inkestatu horren iruzkinak hizkuntza batasunaren beharrezkotasuna azpimarratzen du, hizkuntza-komunitatea batzeko: «Ezinbestekoa da, Iparraldean eta Hegoaldean. Munduan zehar eraman diren esperientzietatik erakusten dute, hizkuntza mehatxatu bat salbatzeko, batasuna beharrezkoa dela, ezen ez baita soilik hizkuntzaren batasuna, baina ere hiztun komunitatearen batasuna».

Inkestatuen ustez, euskara batua beharrezkoa da IEHan elkar ulertzeko, euskalkidunekin, hegoaldekoekin eta diasporarekin, Bernardo Atxaga adibidez edo Euskal Telebista ulertzeko, hedapen handiko komunikabideetan, zientzietan edo filosofian, irakaskuntzan, administrazioetan... Hizkuntza mehatxatua baita, euskararen batasuna beharrezkoa da hizkuntza bera salbatzeko baina ere hizkuntza komunitatearen batasunarentzat. Euskaldun berri gehienek ez dute besterik. Justifikazio aipatuena euskaldunen arteko elkar ulertzea da.

Lau aipamen: «Zendako? Denek elkar konprenitzeko. Bainan guk haiei buruz [Hegoaldekoiei buruz] egiten dugun urrats berak ikusi nahi nituzke

haien aldetik gure alderat. Hemen badu mende bat baino gehiago lapurtar batua denetan sartua dela, tokietako euskalki eta azpieuskalkiak galdu gabe».

Bigarrena: «Herri bat girelako, euskararen herria eta hizkuntza bat ez delako jendea sailkatzeko baina komunikazioa ahalbidetzeko. Gure desberdintasunetaz gain batuak izan gaitezke».

Hirugarrena: «Iparraldean, euskarak ez du gehiago nehon hegemoniarik. Ezin dugu zokokerietan indarrrik xahatu».

Eta azkena: «Hizkuntza guztietan [hizkuntza bateratua izatea] gauza bera gertatu da eta zendako ez euskararekin?».

Nehork ez du erran IEHn euskara batua izatea beharrezkoa ez dela. Hori litzateke, behar bada, inkesta honen ekarpena nagusia?

14. galdera: *Euskara eskuz esku (EEE) egitasmoaren laguntzaileen zerrendan zure deitura ager dadila onartzen duzua?*

BAI	38	% 95,00
EZ	2	% 5,00

Azken galdera horri erantzunak inkestatuek galderei gogo onez erantzun dietela erakusten du eta beren parte hartzea ez dutela gorde nahi. Bik baizik ez dute ezetz erran.

## 7. Ondorioak

Artikulu honetan, inkestaren galdera itxiei buruzko emaitzak eta erantzunei inkestatuek emendatu dizkieten iruzkinak azaldu ditugu bakarrik. Galdera irekiei buruzkoak beste argitalpen batean aurkeztuko dira.

Inkestatuen laginaren adierazgarritasunaz, 40 inkestatu erran dezakegu egokia dela, halere emazte eta gazte guti direla azpimarratuz. Inkesta batzuk gehiago eskuratuko ditugu eta horien arabera artikulu hau moldatuko dugu. 2016an, Ipar Euskal Herrian, euskaldunak 51.200 zirela estimatzen da, biztanleen % 20,5 (Eusko Jaurlaritza, VI. Inkesta soziolinguistikoa). Horietan

euskalgintzan ari direnak, gure xede- publikoa zena, erakasle, idazle, kazetari, itzultzaile, euskara teknikari... mila baino gutiago direla estima daiteke, horien artean irakasle kopurua handiena delarik.

Aurkeztu dugun inkesta honen bidez, lehen atalean azaldu dugun IEHn hizkuntza egoera konplexu hori nola agertzen den laburbiltzea ez da hain erraza. Halere, oro har, joera batzuk agertzen zaizkigu inkestan.

Inkestatuen % 92,5ek IEHko hizkeren berezitasunak zaindu behar direla uste dute. Gehienik erabilia den kalifikatzailea «aberastasuna» da.

Inkestatuen % 80k euskara batuak IEHko euskalkiei kalterik ekartzen ez diela erraten dute, aldiz frantsesak bai.

Hizkuntza aniztasuna baliagarria da euskararentzat –batua, euskalkia eta tokiko hizkerak– erregistro ezberdinen ukaiteko.

Euskara batua beharrezkoa ote da Ipar Euskal Herrian? Hau da ahobatezkotasun handiena eskuratzen duen galdera; % 95ek hori pentsatzen dute. Beharrezkoa da elkar ulertzeko, euskalkidunekin, Hegoaldekoekin eta diasporarekin. Bizi modernoko alor anitzetan beharrezkoa da, beste hizkuntzendako bezala.

Inkestatuen erdiak baino gehiagok uste du euskara batu berezi bat badela orain Ipar Euskal Herrian. Horietarik guti batzuek batu bat aspaldidanik badela IEHn erraten dute, lapurteran eta behe-nafarreran oinarritua. Orain, oro har, euskara batu hori idatzia denean, Euskaltzaindiaren arautegia aplikatzen dela uste dute, hitz berriak eta aditz arautua baliatuz, baina IEHko lexikoa eta erranmoldeak atxikiz. IEHko eragin hori fonetikan eta prosodian agertzen da gehiago, frantsesaren eraginarekin batera. Lexikoan ere bai. Euskara hori batuagoa da idatzian ahozkoan baino, bertako fonetika eta prosodia atxikitzen baitira ahoskatua denean.

Ikerketa honen ondoko urratsak galdera irekiei buruzko emaitzak aztertzea eta argitaratzea izanen dira, beti euskara batuaren eta euskalkien arteko harremanak Ipar Euskal Herrian hobeki ulertzeko helburuarekin. Ulermen hau garrantzitsua da euskararen aldeko hizkuntza politikak gero eta egokiagoak eramateko.



## Bibliografia

CRAMER, Jennifer, 2016, *Perceptual Dialectology*, [www.oxfordhandbooks.com/view/10.1093/oxfordhb/9780199935345.001.0001/oxfordhb-9780199935345-e-60](http://www.oxfordhandbooks.com/view/10.1093/oxfordhb/9780199935345.001.0001/oxfordhb-9780199935345-e-60).

EUSKALTZAINDIA, 1994, *Ene/Nire, Niri*, 5. araua, Arau guztiak, [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus).

———, [www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/baliabide-orokorrak/arauak](http://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/baliabide-orokorrak/arauak) (2018-11-24an kontsultaturik).

EUSKO JAURLARITZA, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa, 2018, *Euskararen egoera Iparraldean – 2016ko Inkesta Soziolinguistikoa* <http://www.mintzaira.fr/eu/euskara/euskararen-egoera-iparraldean.html>

GALLY, Sylvia, 2015, Variation linguistique perçue : quelques localités du Piémont occidental (Italie). Questions de méthodologie en dialectologie perceptuelle, *Corela* HS-16, in 2016 [revues.org](https://revues.org), <https://journals.openedition.org/corela/4013>.

GOIKOETXEA GARIKOITZ ETA BESTE, 2016-10-23, *Harian: Euskara batua eta euskalkiak* dozierra, *Berria* egunkaria.

PAVEAU, Marie-Anne, 2008, Les non-linguistes font-ils de la linguistique ? Une approche anti-éliminativiste des théories folk, *Pratiques – Linguistique, littérature, didactique*, 139-140, <https://journals.openedition.org/pratiques/1200>.

SANDERS, Allison, 2013, *Développer une méthode de recueil de données sur la perception sociolinguistique : comment les jeunes perçoivent-ils l'occitan dans le Sud-Ouest de la France ?* Mémoire Master 1, UGA UFR LLASIC SLFLE – Université Grenoble Alpes, <https://dumas.ccsd.cnrs.fr/dumas-00841377>.

ZUAZO, Koldo, 2005, *Euskara batua Ezina ekinez egina*, Donostia: Elkarlanean.